

Finantza-tresna digitalak erabiltzen **oso ohituta ez dauden** pertsonei zuzenduta dago bereziki.

Kutxabankek aplikazio mugikorraren bertsio sinplifikatuago bat aktibatu du

- **Eragiketa berberak egiteko aukera ematen du, baina hasierako orria bisualagoa da, funtzionalitate erabilienak dituen menu batera eramaten duena**
- **Teknologia berrien irisgarritasunaren eta erabiltzeko ezagutzen artean dagoen aldea saihesten laguntzeko, hainbat prestakuntza-tailerretan parte hartzen ari da Kutxabank**

2021eko azaroaren 25an. Kutxabankek bere mugikorrerako aplikazioaren bertsio sinplifikatuago bat jarri du martxan, tresna digitaletara **ohituta ez dauden pertsonentzat** bereziki egokitua, hala nola adineko pertsonentzat.

“**Hasteko bertsioa**” izena duen bertsio honen ezaugarri nagusia da **hasierako menu azkarra duela**; bisualagoa da eta funtzionalitate ohikoenak baino ez ditu erakusten, hala nola kontuak, txartelak eta ordainagiriak, edota korrespondentzia postontzia kontsultatzea. Aplikazioaren bertsio honetara aplikazioaren ezarpenen bidez sartzen da.

Formatu berri honek ‘laguntza’ atala ere badu, Contact Center zerbitzura deitzeko aukera ematen duena. Erabiltzaileek ohiko galderen atala eta azalpen-bideoak aurkituko dituzte, eta beraien kudeatzailearekin harremanetan jartzeko aukera izango dute.

Gero eta bezero gehiagok erabiltzen dute mugikorra Kutxabankekin harremanetan egoteko, eta **banka mugikorraren diseinu berriak** helburu du bezero horien beharrei erantzutea.

Gainera, esan beharra dago aplikazioaren erabiltzaileen gorakadarik handiena 65 urtetik gorako partikularren artean egon dela; izan ere, 2020tik % 42 handitu da. Erabiltzaile horien gehiengoak (% 68) Kutxabanken aplikazio mugikorra erabiltzen du.

Adinekoentzako prestakuntza-tailerrak

Banku digitalean sartu diren adineko pertsonen kopuruak aurrerapen nabarmena izan duen arren, alde nabarmena dago oraindik teknologia berrien irisgarritasunaren eta erabiltzeko ezagutzen artean. Izan ere, 64 urtetik gorako bezero guztien % 26 baino ez da erabiltzaile digitala.

Online jarduten ohituta ez dauden bezeroei laguntzeko, Kutxabank, zenbait erakunderekin, SECOT elkartearekin eta BBK eta Vital fundazio akziodunekin lankidetzan, adinekoentzako tailerrak prestatzen ari da. Tailer horien helburua da onlineko bankutresnak erabiltzeko oinarrizko kontzeptuak irakastea horiek erabiltzen oso ohituta ez dauden pertsoneri.

Erakundeko 55 urtetik gorako dozenaka bezerok dagoeneko parte hartu dute Donostian, Arabako zenbait herrietan eta Bilbon egin diren prestakuntza-saioetan.

Prestakuntza-saio horietan, finantza-erakundeko kudeatzaile espezializatuek onlineko bankuak banku tradizionalaren aldean eskaintzen dituen abantailak azaltzen dituzte; izan ere, Kutxabanken zerbitzu guztietara eguneko edozein orduan sartzeko aukera ematen dute, etxetik atera behar izan gabe eta ilarak eta itxaronaldiak saihestuta.